

GERNIKA KULTURA - KLIMA FOROA. GERNIKA K2K. GARAPEN JARANGARRIRAKO 2030eko AGENDA GLOBALA LANTZEKO FOROA, KULTURAREN BITARTEZ KLIMA-ALDAKETA AZPIMARRATUZ.

AURREKARIAK

Nahiz eta 17 GJH (Garapen Jasangarrirako Helburuak) horietako bakar bat ere ez den kulturaren bakarrik oinarritzen, "Garapen jasangarrirako 2030 Agenda Globala"-k aintzat hartzen ditu alderdi kulturalari buruzko hainbat aipamen esplizitu. Hauek nabarmenduko ditugu:

- 4.7 helburuak lortu nahi duena da ikasle guztiek bereganatzen dituztela beharrezko ezagutzak teorikoak eta praktikoak garapen jasangarria sustatzeko, besteak beste, munduko herritarrentzako hezkuntzaren bitartez eta Kultura-aniztasuna eta kulturak garapen jasangarriari egiten dion ekarpena baloratuz.
- 8.3 xedeak garapenera bideratutako politikak sustatzea du helburu, ekoizpen-jarduerak indartu asmoz, eta, besteak beste, sormena eta berrikuntza.
- 8.9 eta 12.b helburuek turismo jasangarria sustatzeari egiten diote erreferentzia, Kulturaren eta tokiko produktuen bidez, eta horretarako egokiak diren tresnak egiteko beharri ere bai.
- 11.4 helburuak nabarmentzen du ahaleginak areagotu behar direla babesteko munduko kultur- eta natura-ondarea.

Alderdi kulturalak funtsezkoak dira 2030 Agenda osoak arrakasta izan dezan.

Urte hauetan izandako ebidentziek argi eta garbi erakutsi duten bezala, alderdi kulturalak, besteak beste, parte-hartze aktiboa bizitza kulturalan, banakako eta taldekako kultura-askatasuna, kultura-ondare materialaren babesa eta inmateriala eta kultura-adierazpenen babesa eta sustapena osagai dira giza garapenerako eta garapen iraunkorrerako. Eta ondorio positiboak ere izan ditzakete garapen jasangarriko beste arlo batzuetan. 2030 Agendaren hitzaurreak honako hau adierazten du:

"Munduko natura- eta kultura-aniztasuna aitortzen dugu, baita kultura guztiek eta zibilizazioek garapen jasangarriari lagun diezaioketela eta berebiziko garrantzia dutela hori errazteko".

Gernika K2K (Gernika Kultura eta Klima) foro honen helburua, GJHak Kulturaren bidez sustatu asmoz, kulturaren garrantzia sendotzea da, horren inguruko politikak elkar trukatzuz, ikerketa-proiektuak eta jardunbide egokien bitartez, eta hori guztia GJHak eurak eta aldaketa klimatikoa lorgarriak izan daitezen.

Nazioarteko erreferentziatzko foroa izan nahi dugu tokiko gobernuentzat, gizarte zibileko aktibistentzat eta garapen jasangarriaren garapenean kultura integratzeko konpromisoa duten adituentzat.

Gernika K2K foroak tresna praktikoak aurkeztuko ditu tokiko ekintzen bidez eta, horrela, Kulturak ekarpen handiago egin dezan hirien jasangarritasunerako.

Ekintza desberdinetan landuko dira garapen jasangarrirako 2030 Agendaren funtsezko gaiak, erakundeek (tokiko elkarteek) eta lurralde egiturek klima aldaketan eragina duten GJH-etan egindako ekintzak aurkeztuz. Helburuetako ekintza horiek lagundu egingo dute ulertzen zergatik den garrantzitsua kultura GJHak sustatzeko orduan eta nola egin daitekeen harekiko konexio eraginkorra toki-eremuan.

Gure ustez, tailerren eta hitzaldien formatua da trukatzeko modurik onena, nazioarteko eta tokiko proiektuen praktika onenak aurkeztuz, praktikak erakusten duelako. Aztergai dugun GIH Helburua lortzeko kultura guztiz baliagarria dela frogatzen duten lurraldeetako kasuak aurkeztuko dira. Kasu horiek aurkeztuz, 2030 Agendaren helburuak lortzeko bidean kulturaren garrantzia landuko duten eztabaida eta mahai-inguruak sortuko dira. Hori guztia, klima-aldaketa azpimarratuz.

GERNIKA K2K KULTURARAKO ETA KLIMA ALDAKETARAKO FOROA ZERGATIK GERNIKAN ETA URDAIBAI ESKUALDEAN

Euskadik bere erronkak finkatu ditu klima-aldaketa geldiarazteko **Urdaibain**, Arabako Errioxan eta Zarautzen:

"Krisi klimatikoa eta horren ondorioak gure errealitatearen parte dira. Baina ezin dezakegu amore eman, ezta malenkonian erori ere, izaera orokorra duen arazo baten aurrean". Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua Iñaki Arriolak hauxe ziurtatu zuen: **"Euskadik erronka handi bat du aurrean, eta helburu argi bat:** deskarbonizazioa lortu eta berotze globala geldiaraztea ". Zeregin horren aurrean, Eusko Jaurlaritzak abian jarri du Urban Klima 2050 proiektua, datozen sei urteetan erkidegoan garatuko den klimarekiko ekintza planik handiena, eta arduradun sozialistak aurkeztu zuena Bilboko Euskalduna Jauregian. Ihobe erakunde publikoaren lidergoa izan duen asmo handiko ekimen hau, erkidegoko hiri guneetan dauden arrisku errealei buruzko diagnostiko zehatza egitearekin hasiko da (bereziki kostaldean eta ibai inguru eta bokaleetan) eta zehaztasunez aztertu eta definituko da nola, non eta noiz jardun.

Horrela, 2025era arte, eta modu aitzindari eta esperimentalean, 40 ekintza zehatz jarriko dira martxan atmosferara CO2 gutxiago isurtzeko eta lurraldeari tresna naturalak atxikitzeko, berotze globalari berme handiagoz aurre egin ahal izateko. **Lurzoruaren iragazkortasuna hobetzea uholdeak saihesteko zein basoak eta berdeguneak handitzea** airean partikula kutsakorrek xurgatzeko ahalmena biderkatzeko edota hirigintza jasangarriaren aldeko apustua egitea, muturreko tenperaturak ez daitezen horren itogarriak izan. Laburbilduz Iñaki Arriolak adierazi zuenez "Helburua da lurraldea egokitzea, nahiz eta klimak aldaketa kaltegarriak inposatu dituen"; hala esan zuen megaproiektuan parte hartuko duten hogeai administrazio, erakunde eta enpresetako 150 ordezkari baino gehiagoren aurrean.

Sailburuak azpimarratu zuen planak Euskadi osoa hartzen duela, nahiz eta Bizkaian Bilbo eta bere ingurunea hartu, baina, **batez ere, Urdaibai; horiek dira frogak egiteko laborategi bihurtuko diren gune printzipalak. Biosfera-erreserbako inguruetan, Bermeon, Bakion eta Gernikan**, besteak beste, konponbideak bilatuko dira portuak eta kostaldeko eremuak egokitzeke. Eta Butroe, Oka eta Ibaizabal ibaietako arro eta bokaleetan uholdeak prebenitzeko eta lehorteen kasuan ur-hornidura optimizatu eta bermatzeko. Araban bizikleta elektrikoaren eta nekazaritza ekologikoaren erabilera bultzatuko da Gasteizen eta bere inguruan, eta Arabako Errioxan mahastien inausketaren hondakinen biomasa berrerabilpen energetikorako. Gipuzkoan Donostian eta Zarautzen ekingo zaio.

Europara esportatu daitezkeen planak

Esku-hartze horiek garrantzi handia izango dute, ez bakarrik garatzen diren lekuetarako, baizik eta esportatu nahi den Euskadiko, Espainiako zein Europako beste "herri, eskualde edo ibai-

arro" batzuetara. **Guztietan "bilatuko dira irtenbide naturalak**, hala nola bultzaturik azpiegitura berdeak, mugikortasun jasangarria eta energia berriztagarrien proiektuak".

Urban Klima 2050ek 19,8 milioi euroko inbertsio publikoa eskatuko du, nahiz eta EBk finantzatuko duen aurrekontuaren % 51, Europako agintariek proiektua life integratua programaren barruan sartu ondoren. Arriolak zehaztu zuenez, arauz proiektu bakar bat onartzen da gehienez herrialde bakoitzeko, "baina salbuespen gisa, nahiz eta Nafarroan beste bat izan, onartu egin du Euskadik aurkeztutako proposamena ". Oniritzia emateko, **Europako Batzordeak kontuan izan du hiri-ingurunean planteatutako ekintzen "euskal ikuspegia"**, bere aniztasuna, "eta baita Euskal Autonomia Erkidegoko Klima Aldaketaren Estrategiaren definizio- eta gauzatze-maila ". Eta aurreratu zuenez, Europaren (eta Euskadiren) erronka 2050ean karbonotan gizarte "neutroa" izatea izanik –isurtzen duen CO2 guztia medio naturalen bidez xurgatzeko gai-, helburua lortzeko beharrezkoa da 2030erako berotegi-efektuko gasen isurketak % 40 murriztea.

Urban Klima martxan jartzea ez da erraza izan. IHOBek administrazio eta enpresa partzuergo bat sortzea sustatu du "finkaturiko helburuak lortzeko modu koordinatuan lan egiteko". Ildo horretan, **partaide dira hiru aldundiak eta hiru hiriburuak**, Bakio, Bermeo, **Gernika** eta Zarautz udalerriak, Eusko Jaurlaritzako eta Toki eremuko entitate publiko desberdin batzuk, eta baita teknologia- eta ikerketa-zentroak ere (Azti, BC3, Neiker, Tecnalia eta Tecnun) eta Naturklima fundazioa. Behin neurri guztiak diseinatu eta testatu ondoren, erakunde horiek proiektua garatzeko egin beharko duten inbertsio orokorra 625 milioi eurokoa izango da".

PROPOSAMENAREN HELBURU OROKORRA

Gernika foroa, UNESCOren Bakearen eta Kulturaren egoitza eta hiri gisa, eta Biosfera-erreserbako lurraldean kokatua, bere ekintzen hedapena sustatuko du, 2030 Agendaren 16. Helburua kontuan hartuta: GARAPEN JASANGARRIRAKO GIZARTE BAKETSU ETA INKLUSIBOAK SUSTATZEA, guztientzako justizia eskura jartzea eta erakunde eraginkorrak, arduratsuak eta inklusiboak eraikitzea maila guztietan.

Gernika K2K foroaren buru Gernikako Udaleko kultura zinegotzia eta Kultura Planeko Aholku Batzordearekin batera ekingo dio, Gernika-Lumoko Kultura eta enpresa munduko erreferenteak bertan; udaleko gainerako zinegotziekin, Biosfera erreserban partaide diren udal eta entitateekin eta Urban klima proiektuko parte-hartzaileekin. Gainera, eratuko diren tailerretan nazioarteko lurraldeetako pertsoneri ere sarbidea emango zaie, euren jakintza ezagutzera eman dezaten eta nazioarteko foroa sortu dadin.

Zergatik da garrantzitsua kultura arlo horretan?

- Herritarrek parte hartu behar dutelako kultur politika eta programen diseinuan, ezarpenean eta eta ebaluaketan.
- Kultura-instalazioak, bereziki liburutegiak eta jakintza zentroak, klima aldaketarako ekimenen informazioa eskuragarri izan dadin sustatzaile izan behar dute.
- Klima-aldaketaren tentsioek eragindako indarkeria murriztea eta bakea sustatzea helburu duten estrategiek, osagai kultural bat izan behar dute.

Zer egin dezakete lurraldeek?

- Eskubide kulturalak tokiko politiken erdigunean kokatzea, partaide izan daitezen diseinuan, politiken inplementazioan eta ebaluaketan, programetan, zerbitzuetan, eta abarretan.
- Kontuan hartzea eta aitortzea kulturak duen potentziala klima aldaketaren ondorio diren toki konfliktuen prebentzio eta konponketa estrategietan.
- Informazio libre eta pluralerako sarbidea bermatzea, tokiko hedabideen edo pluralen bidez.
- Adierazpen artistikoaren askatasuna babesteko eta sustatzeko konpromisoa hartzea, tokian-tokian eta nazioartean, adibidez, klima-aldaketaren ondorioz mehatxatuta dauden kultura arloko artista eta profesionaleri kabia emanda.
- **Kultura-politkarako foro publikoak ezartzea** (adibidez, tokiko kultura-kontseiluak), partaide izanik erakunde publikoak, pribatuak eta gizarte zibilekoak herritarrekin batera, tokiko kultura-politika eztabaidatzeko, lehentasunak finkatzeko eta hori betetzen den zaintzeko.
- Laguntza publikoa jasotzen duten kultura-erakundeak izan daitezen gardenak, kontuak ematen ditzaten eta eskaintzen dituzten zerbitzu publikoak ebaluatu ditzaten.
- Kulturaren gobernantza pluralaren parte gisa gizarte zibileko antolakundeek eta sareek betetzen duten funtzio garrantzitsua aitortzea eta horren garapena bideragarri egiteko giroa izan dadin bermatzea.
- Udalerrien elkarte nazionalak eta banakako hiriek beren gobernu nazionalak eskatu egin behar diete "kultura-politika" atal bat sortzea, programa nazionalak "eragin kulturalaren ebaluazioa" egiteko prozesua jasoko duena. Eta hori guztia, orokorrean GJH-ak inplementatzeko eta modu berezian klima aldaketarenak.

GJHak sustatzeko Gernika K2K foro hau, klima-aldaketan kulturaren bidez eragin nahi rik, praktika hobek osatu, barreiatu, komunikatu eta trukatu ditugu (besteak beste, Urban Klima estrategia) 2020an antolatuko ditugun tailerren eta hitzaldien bidez.

2020an garatuko diren tailerren edukia.

Tailerak hainbat hizkuntzatan egingo dira. **Euskarak lehentasuna izango du** komunikazioetan. Bai ponentzia batzuen garapenean zein aurkezpenetan eta horien berri ematerako orduan ere.

1. TAILERRA 13. HELBURURAKO: Klima-aldaketari eta bere ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea.

Data: 2020ko irailaren 24a eta 25a

Tokia: Gernika-Lumo.

Helburua da erresilientzia sendotzea eta klimaren arriskuak zein hondamendi naturalak egokitzeko gaitasuna indartzea herrialde guztietan; klima aldaketari buruzko neurriak txertatzea politika eta estrategia guztietan, eta arlo honetan hezkuntza, sentsibilizazioa eta gaitasuna hobetzea.

Kultura zergatik da garrantzitsua arlo horretan?

- Loturak daude kultura-jardueren, ezagutza tradizionalaren eta ingurumenaren aldetik jasagarriak diren praktiken artean; aztertu eta sustatu behar dira.
- Sormena lantzen duten profesionalak parte har dezakete klima-aldaketari buruzko sentsibilizazio ekintzetan.

Zer egin dezakete lurraldeek?

- Garatuko diren politiketan esplizituki ezagutzea kulturaren eta ingurumen-jasangarritasunaren artean, klima-aldaketarekin, erresilientziarekin eta baliabideen erabilpen jasangarriarekin lotutako kezka berru.
- Gernika K2K Foroan integratutako lantalde edo unitate berezi bat ezartzea, toki gobernuetako kultura sailek eta MMAA-ek garatzen ari diren lanak erlazionatzeko.
- Artistak eta kultura profesionalak inplikatzeko klima aldaketaren egokipena sustatzeko estrategia eta programak moldatzerakoan.

Tailerrean aurkeztuko diren lurraldeen adibideak:

Dakar: Amankomunerako Eskola Proiektua

Proiektuaren helburua da sormen kolektiboa erabiltzea hiri-arazoei aurre egiteko, besteak beste, espazio publikoak hiri-lorategi bihurtuz, herritarren konpromisoa sustatuz eta ekologiararen arloan lanpostuz sortuz.

Aceh banda: Post tsunami 2004 proiektua

2004ko tsunamiaren ondorengo ahaleginak kultura ondarean zentratu ziren, ikerketa eta kontserbazioa aintzat hartuta eta baita gaitasunak sortu eta sentsibilizazio publikoa areagotuz, ziurtatzeko ez zirela suntsituko balio handiko eraikinak eta urbanizazioak berreraikitze prozesuan.

Chicagon: Ingurumen Ikuskaria proiektua.

Proiektua izan zen klima ikuskaritzarako artelan bat, loratuta zeuden eta tenperaturarekiko sentsibleak ziren bertako 453 zuhaitzez osatuta, herritarrak eta zientzialariak tokiko mikroklimen ulermenean inplikatu eta klima aldaketaren ondorioez jabe daitezen.

Zenbait erakundek, Julie 's Bicycle eta COALek besteak beste, aholkularitza, laguntza eta tresna praktikoak eskaintzen dizkie kultura-erakundeei, hiriei eta beste hiri-eragile batzuei, behin eta interesatuta badaude kutsadura murrizteaz eta kultura esparruan klima aldaketarekiko egokipena sustatzeaz.

Euskadin: URBAN KLIMA proiektua.

2. TAILERRA, 14. HELBURUA: Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak modu jasangarrian kontserbatu eta erabili garapen jasangarrirako.

Data eta tokia: 2020ko urria.

Webinar.

Zergatik da garrantzitsua kultura arlo horretan?

Kultur tradizio batzuk itsasoko eta kostaldeko ekosistemen zaintza jasangarriarekin lotuta daude eta beharrezkoa da identifikatzea eta indartzea.

Zer egin dezakete lurraldeek?

Paisaiaren nozioa beren politiketan esplizituki kontuan hartzea, garapenaren alde naturalak integratuz.

Tailerrean aurkeztuko diren lurraldeen adibideak.

Ha Long: EKOMUSEO proiektua

Paisaiaren eta ondarearen balorazioa aintzat hartzen du, ingurune naturala babesteko neurriak hartuz, eta sortu egin du baita ere kultur zentro flotatzaile bat arrantzale herrixka txiki batean.

Lokala: Oceantech. Euskadi - Akitania proiektua, ozeanoen iraunkortasunerako praktika hobekak elkar trukatzeko.

3. tailerra, 15. helbururako: Lehorreko ekosistemen erabilera jasangarria babestea, berrezartzea eta sustatzea, basoak modu iraunkorrean kudeatzea, desertifikazioaren aurka egin, lurren degradazioa geldiaraztea eta bueltatzea eta biodibertsitatearen galera etetea.

Data eta lekua: 2020ko azaroa (baieztatzeke, covid19aren bilakaeraren arabera (Urdaibaiko Patronatua (Busturia). Ekitaldiaren digitalizazioa azpimarratuko da. Aurre aurreko ekintzetarako espazioen digitalizazioa eta diseinua.

Zergatik da garrantzitsua kultura arlo horretan?

Beharrezkoa da aintzat hartzea faktore kulturalak, lehorreko ekosistemen babesarekin lotuta daudenak, besteak beste, tokiko ezagutza tradizionala eta tradiziozkoa, eta hori guztia arlo honetako politikak eta programak diseinatu, inplementatu eta ebaluatzerakoan.

Zer egin dezakete lurraldeek?

Naturguneen garrantzi kulturala ezagutzea programa espezifikoen bidez.

Lehorreko ekosistemen kudeaketarako eta erabilera jasangarrirako jakintza tradizionalaren eta ondare inmaterialarekin lotutako praktiken babesa eta transferentzia babesteko ekimenak garatzea.

Tailerrean aurkeztuko diren lurraldeen adibideak:

Nazioartekoak:

Gabrovn: "Ongi etorriak landa gunera" proiektua.

Landa-komunitateetatik hiri-komunitateetara ezagutzaren transferentzia sustatzeko, "ongi etorriak landa gunera" proiektuaren bidez; posible egiten du hurrek zaharregandik ikastea landa gunean bizi izanik.

Baie Saint Paul: artearen eta ondarearen hiria

Bi ibaiek zeharkatzen dute eta Charlevoix biosfera erreseerbaren zati batek ere bai; onartu duen Agenda 21 programak garapen jasagarriaren lau zutabeak biltzen ditu, besteak beste, Kultura-bizitasunaren eta ingurumen-babesaren artean dauden loturak ulertzea.

Kaunas: Repollo SAnciaren proiektua

Lurzati baten saneamenduaren bidez kultura-eskubideak praktikan jartzeko proiektua, herritarrek gidatutako partaidetza-prozesu baten bidez egina. Prozesu horretan arteak eta Kulturak lurraldea eraldatzen eta landareen zein arbolen aberastasunari buruz kontzientziatzen laguntzen du, beste helburu batzuen artean.

Lokalak:

Gernika-Lumoko proiektua, herri-jai jasagarrietarako.

FOROAREN TAILERRETAN ESPERO DIREN EMAITZAK.

- **Klima aldaketaren aurka borrokatzeko kultura-politkarako nazioarteko foro bat finkatzea**, herritarrekin batera erakunde publikoak, pribatuak eta gizarte zibilekoak partaide izanik, tokiko kultura-politika eztabaidatzeko, lehentasunak finkatzeko eta betetzen den ikuskatzeko.
- Gizarte zibileko kultura-erakundeek eta sareek klima-aldaketaren borrokan betetzen duten funtzio garrantzitsua aitortzea.
- "Klima-aldaketarako kultura-politika" deituriko kapitulu bat sortzea, barnean prozesu bat hartuko duena "Kultura-inpaktuaren ebaluazioa" egiteko programa nazionaletan, inplementatzeko GJHak, oro har, eta klima-aldaketaren helburuak, bereziki.